

Bernardo Atxaga, Obabakoak, Erein, 1989.

MARGARETE, HEINRICH

Bernardo Atxaga

Eman dezagun oraintxe bertan hasten ari den hau istorio edo ipuin bat dela, hamar edo hamarika orrialdetakoa agian, eta zehaztu dezagun hipotesia esanez beste bi sujet nagusiak izenburuan aipatutakoak izango direla, hots, Margarete eta Heinrich anaiarrebak: zeinek—Heinrichen urrutiko lanaren kausaz—elkarrengandik berezita bizi baitziren kontatuko dena gertatu zen garaian: udazken batez, mila bederatzirehun eta hogeitamalagarren urtean.

Eta egin dezagun kontu, hartara hipotesia borobilduz, Heinrichi tren estazio batean hil zitzaiola bere arreba bakar hura, Margarete; eta hil zitzaiola —oinazea arin dezakeen esamolde apur bat nabarmenez adierazteko— airea bapatean utzi eta ur sakonetan murgiltzen den itsas hegazti bat bezala, oh, nora joan da, zer gertatu zaio hegan hain ondo egiten zuenari, zergatik hain besteko presa...

Bada, gauzak hola, zilegi izango zaigu, noski, Heinrich —berri gaitz hura ematen zion gutuna irakurtzerakoan— portuko kaian zegoela ziurtatzea. Edo areago: portu horretako grua baten kabinan ari zela lanean, eta aurrean zeuzkaila, bere altratik nahi gabe ere ikusteko moduan, hogeiren bat untzi tonelada askokoak, guztiak geldirik zeru lainotsu eta gris baten hurbilean, bakoitza bere banderarekin; eta haietako bat zela, hain zuzen, bera kargatzen ari zena.

Arratsak —aitor daiteke inolako hipotesiren laguntzarik gabe— zauri garratzak eragiten ditu gizonarengan. Egunaren urre eta zilarrak hauster bihurtzen direnarekin batera, itzali egingo ten da gure bihotza ere: ordu hori izaten baita aurrentipen tristeena; ordu horretan irakurtzen baitira —Heinrichi gertatu zitzaion moduan— goizean jaso eta soinean ahaztuta edukitako gutun jelatuak.

“Badirudi” —esaten zion Bavierako juje batek— “une hartan bertan estaziora sartzen ari zen tren baten gurpiletara erori zela. Ez zitzaion aurkitu, zurea ezik, beste inongo senideren atarrenik. Hilketaren aukera ere aztertu beharra daukagunez, idatziko zaizu berriro, zerbait jakin bezain azkar.”

Pundu honetara heldurik, irakurleak —garai bateko koplarietako bezala— lizentzia eman beharko dio idazleari; erdi ahaztuta zeukan

hipotesia zeharo ahaztu dezan, esan nahi da. Zeren, bestela, nahitazkoa bailitzateke aditz mota aski aldrebesen erabilera, eta horrek ez bailuke —gehienontzat bederen— kaltea eta nahastea besterik ekarriko. Segi dezagun, beraz, istorioa egitazkoa balitz bezala kontatuz.

Heinrichek atzera bota zuen burua, kabinaren atzekaldeko altzairua ukitzeraino, eta bere odola sentitu zuen instantera, zainetan kolpatuz eta gutunean irakurritakoa gorputz osoan hedatuz; birika eta belaunei adieraziz, hesteei, besoei.

Indarrrik gabe geltitu zen, eta inguruko munduarekin harremanik ez zuela. Labaindu egin zitzaion guruna eskuetatik, eta ez zen ohar-tu —euria hasi zuenean— tantek kristalean sortutako marra distiranteetaz; ez eta kaiatik egiten zizkioten oihuez ere. Gero, azkenez, kaio bat ikusi zuen, deiadarka ari zena, eta haren hegadari segitu zion begiz: bazihoala laino arte-ra, jaisten zela burnizko zubi baten zutabera, bazetorrela bera kargatzen ari zen untziaren brankaraino. *Three sisters* irakurri zuen orduan, eta bere begiak, txoria galduz, kolpetik geratu ziren; harrituta untziaren izena osatzen zuten hamabi letra haiekin.

“Nik ez neukan bat besterik”, etorri zitzaion burura. Baina horrek ez zion bizitzaren ironia hari buruzko harridura gozatu.

Oihu egiten ziotela konturatu zen gutxira. Haserreturik, karga lotua zegoela adierazten zioten kaiko langileek, zeinen zain zegoen hura altxatzeari ekiteko; bustitzen ari zirela.

Kabinaren kristala lehortu eta arretarik jarri gabe bete zuen eskatutakoa, ohituraren porderioz. Segidan guaren eskilaretatik lurreratu eta haiengana hurbildu zen.

“Joan egin beharra daukat”, azaldu zien ahots ahuldu batez.

“Gaixo nagoela uste dut”, gaineratu zuen.

Baina kaian zeuden hamar gizonek bere eskuan segitzen zuen gutunari erreparatzen zioten, esaten zuenari jaramonik egiteke.

“Lasai, bilatuko duk besteren bat. Beste andreren bat, alegia,” otu zitzaion talde hartako buruari, erdi barrez. Eta gainerako guztiek ere barre egin zuten. Ez baitzen, kontseilu hura, gaizki ulertu baten ondorio, baizik eta Heinrichi zuzendutako burla bat. Kaiko langileei ez zitzaien guarekin —han goian, beraien gainetik— aritzen zen gazte ixil eta *finegi* hura gus-tatzen. Ez zuten uste andre arazoak eduki zitzakeenik. Hitz batean esanda, ez zitzaaien *gizon osoa* iruditzen.

Erantzunik eman gabe aldegin zuen kaitik, bulegoetarantz. Han aldatu eta, burnizko zubia zeharkatuz, karretera nagusira atera zen; ezertan pentsatu gabe, bereak bezala onartuz kaiok —multzokadatan orain— euripean egiten ziztuzten deiadarrak.

Hiru urte leku urruti hartan lanean, eta ez zeukan —ez portuko giroan, ez bere auzoan— lagun bakar bat ere: agian ohitu egin zelako hara iritsi eta bere bizitzan azalduko bakardadeta; eta zamarik gabekoa gertatu zitzaiolako, ondorenean, bizitzeko modu hura. Ordea egun hartan, autobusaren zain zegoela, izen bat bilatu zuen bere memorian, aurpegi bat, eta irudimenari amore eman ez bere burua ikusi zuen lagun haren etxeko egongelan, kizarakada kafeurrean zuela eta Margaretari buruz hitzegiten: arreba bakarra zuela, edo areago, arreba eta senide bakarra biak umezurtz gelditu izan zirenetik; eta hogetailau urtetako neska zela, ile oso horikoa, eta ez beraren modukoa, baizik eta alai eta festazalea, etxean egoten ez zekiena, eta badakizu?, izugarri gustatzen zitzaizkion gabardinak, eta baita guardasolak ere, ez dakizu zein ondo jazten zen, eta behin, artean premia haundirik gabe bizi ginela, Frantziako hondartza batera joan ginen hamabost egun pasatzera, eta berak esaten zidan, oh neba maitea, leku polita duk, baina euririk ez duen leku bat ezin zitekek *chic* izan; eta gero berriz eztabaida bat eduki genuen kaioen bizimoduari buruz... eta Heinrichek, autobusaren leihotik, kaipei begiratu zien, nola zebiltzan jira eta biraka itsas ibaiaren ertzetan, nola bilatzen zuten jana egur usteldu eta burni zaharren artean. Baina beste kaio batzuk ziren. Ez zegoen izenik bere memorian. Ez zegoen lagunik.

Ettxera iritsi zenean giltzatu egin zuen atea. Ez, noski, inor deika etorriko zitzaizolako beldurrez, baizik eta pertsona orok, berea bezalako une larrietan, sentitzen duen izkutatzeko behar naturalagatik. Ez zuen ezer nahi munduarekin, zeren mundua, orain, ezjakina eta gorrotagarria baitzitzaion. Ezjakina Margareteren heriotzaren berririk ez zuelako; gorrotagarria, berriz, ezbehar hartaz jabetu ere jabetu nahi ez zuelako.

Heinrichek ohe gainean ahozpeztzanda pasa zuen ordubete baino gehiago, eta gero, zerbait lasaitu zenean, bere arrebari buruz mintza zitekeen objektu guztiak bildu zituen kajoi eta apaletatik: erretratoak, ile matazak, behin hark erregalaturiko kaxa borobil eta perfumatu bat. Mahai batean antolatuz, aldare ttiki bat osatu zuen objektu guzti haiekin, eta flexo baten argitara jarri.

“Nola ez hunan trenna ikusi, Margarete?” galdetu zuen mahai aurrean eseriz. Eta galdera harekin hasitako zeremonia egunsentirarte luzatu zen.

Baina objektu haiek, kontsolatu beharrean, areagotu egiten zuten bere barreneko hutsunea, azpimarratu bere arrebaren falta. Eta hala, behar bada sufrimenduak jakituria berezi bat ematen duelako, soineko bat etorri zitzaion burura, Margaretek bisita batean ahaztu eta armarioan gordeta zeukana.

“Jantzi egingo dut”, erabaki zuen.

Ez al zieten denek, ttikitandik, antza haundia zeukatela esaten? Ez al ziren biak odol berekoak? Ez al zegoen beragan Margareteren presentziarik sendoena? Hori gogoan, gelarako bi-dea hartu zuen.

Artean, pasilutik zihoala, ez zuen pentsatzeko egitera zihoanak bere bizitza osoa aldatuko zuenik. Bere arreba une batez berpiztea, ez zuen beste asmorik; une batez bakarririk, zeremoniak irauten bitartean. Gero, ohizko lekuetara itzuli beharko zuten gauzek.

Baina aldaketa soinekoa bere azalean sentituko orduko gertatu zen, halanola haur ipuinetako amandreek, ukitu aldi batez eta instant batean, eder edo osasuntsu bihurtzen duten lehenxego itsusi edo gaixo izandakoa. Zeren اندrezko bezala jantzirik —eta espiluan, ez bere burua, baizik eta Margareteren itxurako pertsona bat aurkituz— Heinrichek, azkenez, konprenitu egin baitzuen. Bapatean zentzu bat antze-man zion bere ordurarteko bizitzari. Bakarririk pasatako orduak, portuko giro zabarrak ematen zion higuina, etengabe sentitutako ondoeza... hura dena, orain, eskolako ariketarik errazena baino garbiagoa egiten zitzaion.

Aspaldiko partez, Heinrich harro sentitzen zen. Ibilia zen, luzaro, basoan galdutako ume bat bezala, sasiekin urraturik eta alferrikako oihuak eginez. Ordea aurrerantzean ez zen urra-

durarik egongo, ez eta oihurik ere. Basoaren ertza ikusten zuen, eta paisaia zela eta xamur bat haren atzean: bere zain egondako lagun berria.

“Hemendik aurrera bat izango gaitun biok, Margarete”, murmuriatu zuen. Eta nahiz logaleak eta nekeak erne erazitako delirioa izan, hitz haiek zinez adierazten zuten bere sentimendua. Egun hartaz geroz, andrezkoa izango zen.

“Ez haunat sekula ahaztuko, arreba maitea”, gaineratu zuen. Eta promesa harekin josia geratu zen erabakia.

Mahai aurrean eseri zen berriro, eta bi ohar idatzi zituen. Lehenengoan, Margarete bezala izenpetuz, Heinrich Wunn-en heriotza adierazi zien portuko zuzendariei; berari bidaltzeko, arren, nebari zegokion finikitoa. Bigarrena, berriro, zerrenda bat izan zen, hurrengo egunean erosi behar zituen gauzekin osatua; oinetakoe-kin hasi eta begietarako lapitzekin bukatzen zena.

Leihoan gelditu zen ohera sartu aurretik. Lotan segitzen zuten huriko beste biztanleek, baina igarri zitezkeen, ordurako, egunsentia-aren zantzuak: ostarte urdinak zeruan, eta eguzkia-ren horitasuna batimendu nagusien kristaletan. Denbora asko gabe hasiko ziren geletako erlo-juak deika. Gero, kolpetik, kalera joko zuten denek, andreak eta gizonak, zaharrak eta gazteak.

Hasperen egin zuen. Lehenengoz, jende guzti harekin biltzeko gogoa zeukan.

Halakoa izan zen aldaketak bere bizitzara ekarri zuen poza non etorkizuna itzal bakar bat ere gabea sumatzen zuen. Margareteren izpirituak gidatzen zuela iruditzen zitzaion, eta gidaritza hark —amandre batenak bezala— bakkirik ikusmira ederretara eraman zezakeela; eta etxe epeletara, eta lagunarte alaietara.

Eta errealitateak berak ere arrazoi ematen ziola zirudien, berak espero izandako guztia jarri nahi ziola eskura: batean, huriko kaleetatik paseoan atera eta festa giroan bukatuko zuen, musika eta lujo haundiko saloietan; hurrengoan, *bar* batera joan eta hondartza alboko etxe batera inbitatuko zuten asteburua pasatzera.

Bere agenda, lehen hutsa bezala, egunetik egunera hazitzen zen. Luze gabe, soinekoa es-traina jantzi zuenetik hilabete ez zela, bigarren etxetzat hartu zuen huriko *private club* bat, *Atropos* izenekoa. Batzuetan, hango taulatura igo eta kantatu egiten zuen.

Egun batean, Atropos-en lagun batzuekin zegoela, berrogei bat urtetako profesore baten ezaguera eman zioten. Altua zen, ile eta begi oso beltzekikoa. Sedazko painelu gorri bat zera-man lepoan.

“Hartuko al zenuke champagne piska bat nirekin?” galdetu zion Walterrek. Hori baitzen profesorearen izena.

“Jakina baietz. Baina ez nago ohitua”, erantzun zion apur bat aztoratuz.

“Aspaldi eman didaten baietzik pozgarriena izan da”, entzun zuen. Begi beltz haiek irribarre egiten zioten.

Heinrichek bi egun pasa zituen irribarre hura burutik ezin kenduz. Hirugarrean Walterrek telefonoz hotsegin zion. Laugarrean, parke batetik paseoa ibili eta gero, elkarrenganako zeukaten maitasuna seinalatu zuten.

Bere bizitza guztiko boladarik zoriontsuena izan zen Heinrichentzat. Walter bere aurreneko amodioa baitzen, eta hargatik zoroa, erabatekoa, beste ezertarako gogo edo betarik uzten ez ziona.

“Zer moduz bizi haiz?” galdetu zion behin Walterrek. Unibertsitateak argitaratu berria zion liburu bat ospatzen ari ziren; *champagne* botilabaten aurrean, orduan ere.

“Hi ezagutu hinueanetik, oso ondo.”

“Oso ondo, bai, baina nola?”

“Nobela batean bezala,” asmatu zuen.

“Eskerrak! Nobelak gozoagoak diruk saiakerak baino!” egin zuen barre Walterrek bere liburua astinduz.

Baina Heinrich nahastu egiten zen. Bere bizitza ez zen, inondik ere, nobela bat, hamar, hogeit hamar berrogei kapitulutan luzatu behar zuena; baizik eta ipuin labur bat, bere bukaerantz azkarki zihoa. Eta agian bere erruz, zeren ordurako —maitasuna zela eta— zeharo

ahaztua baitzeukan bere arreba bakar hura, Margarete; eta —promesa bat hausten duten ipuinetako pertsonaia guztien moduan— kastigua merezi baitzuen hargatik.

Lausoa, bere bizitzak errortzat zeukan lausoa, Walter eta biak teatora joan ziren gaur batean hasi zen desegiten. Oinez zihozazen etxerantz, kale ixiletatik barrena, ixilak beraiek ere; eta hartan, abistu luze bat entzun zuten, huria intziri batek bezala zeharkatu zuena.

“Trena”, esan zuen Walterrek axolarik gabe. Eta oinez segitu zuen.

Ordea Heinrich espaloiori erantsita gelditzen, eta hotzikara batek hartu zion gorputz osoa. Ez baitzen izan, berarentzat, dei abstrakto bat, zuhurtziaren izenean egina eta esanahi aski xehekoa; baizik eta mezu garbia, berari bereziki zuzendua, bere bihotzeraino barneratu eta han oihartzun bat aurkitu zuena.

“Zeren zain hago?” galdetu zion Walterrek inguratuz.

“Trenaren bigarren deia entzun nahi diat”, erantzun zion ixilka.

Eta iritsi zen bigarren dei hura, eta malkoak atera zizkion Heinrichi.

“Baina, zer duk? Zergatik ari haiz nigarrez?” izutu zen Walter. Bere bi eskuekin hartu zion burua.

“Ez duk ezer ere. Gauza triste bat etorri zaidala gogora, besterik ez,” eta, hori esanez, bere lagunaren bularrean bebestu zen.

Heinrichek, bere onera etorri zenean, ikuspundu horretatik ulertu nahi izan zuen gertatutakoa. Pentsatu zuen artean ez zegoela —Margarete eta bien arteko batasuna— ondo osatu eta josia, eta horregatik hunkitu zuela hainbeste trenaren deiak: apur bat ahaztua zeukan pertsona maite haren ezbeharra gogoratu erazi ziolako.

Baina arrazoinatzeko modu hura, hain zuzena zirudiena —Walterrek berak antzeko bizipahiru kasu kontatu zizkion—, denborak ezeztatuko zuen. Zeren, aurreneko aldi hartaz geroz, gauero jotzen baitzuen Heinrichek kalera, *sonnambulo* baten modura, zer egiten ari zen ere ez zekiela; eta behin kalean zain gelditzen baitziztaion trenaren deiari. Eta ez zitzaion ardura izaten, gainera, zer edo nor utzi behar zuen bere xede hura betetzeko. Atropos-eko jai batean egon, Walterren etxean egon, berak aldegin egiten zuen; aitzeikirik jarri gabe askotan.

Gero eta ilunagoa bere bizitzaren haria, Heinrichi joan egin zitzaion soinekoek emandako poza.

“Egia da. Oso bolada txarra pasatzen ari naiz”, aitortu zuen Walter bisitan etorri zitzaion egun batean. Jadanik ez baitzen klubetara azaltzen.

“Eta niregana? Zergatik ez haiz etortzen nire etxera?” Walterrek begietara hitzegiten zion, arrazoi eske.

“Joango nauk, baina gero, zulo honetatik ateratzean”.

“Beste norbait ezagutu al duk?” jaitsi zuen burua Walterrek.

“Ez, ez duk hori. Baina bakarrik egoteko gogoa zeukat”.

Walterrek nigar egin zuen, baina alferrik. Heinrichen erabakia serioa zen.

Negua etorri zenean, are eta hutsago bihurtu ziren huriko gauak. Soilik moskorrak edo eskaleak ikus zitezkeen, estazioko bazterretan etzanda, edaten eta builaka, haien artean mugitzen zen andre bakarra bereganatu nahiz.

“Ez egien trenen gupilei begiratu. Begiratu ezan guregana,” esaten zioten.

Baina Heinrichek ez zien entzun ere egiten. Trenen sarrerak zaintzen zituen, eta gero eta hurbilagotik. Hartarako besterik ez baitzen bizi.

Saiatu zen, halere, ibilitako bidean atzera egiten, eta, soinekoak ahaztuz, portuan lanean ari zeneko bizimodura itzultzekotan egon zen. Baina bere barrenean agintzen zuen indarrak ez zion aukera hori eskaini nahi izan. Aitzitik, trenbideko karrilen artetik ibiltzen hasteko eskatu zion.

Eguberrietarako gutxi falta zela Bavieratik idatzi zioten. Margareteren heriotzak ez zuela hilketa baten posibilitatea ametitzen, esaten zion hango jujeak.

“Beraz, bere burua bota zuela pentsatu beharra daukagu”, zioen segidan.

Heinrichek paper ontzira bota zuen Bavierako jujearen bigarren gutun hura. Ez zeukan informazio haren premiarik. Gero, apika azkenengo aldiz, estaziora abiatu zen.

Ez zuen susmatzen, orduan, bere bizitzako gertaerek hartuko zuten ospea: bere lagun izandako Walter Veerer-ek idatzirikko liburuagatik, batez ere —*Die Geschichte der Homosexualität in der Westlichen Welt*—; baina baita, apur bat, bere istorioa asmatzen ari zelako itxura egin zuen idazle bati esker ere. Zeren, esan dezadan bukatzeko, hipotesi guztiak bizitzan betetzen baitira; eta ez badira betetzen, beraintzat okerrago.